

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Oraingoan, definituko dugu zehatz-mehatz zeintzuk izango diren gure funtsezko elkarteak, hau da, zeinekin kontaktatuko dugun. Behar beharrezkoa da bezeroarekin kontaktuan ezartzea, horrela gure proiektua aurrera eramateko.

Gure elkarte nagusiak udaletxeak izango dira, hauekin kontaktuan jarriko gara eta gure zerbitzua eskainiko diegu aurkezpen baten bidez, bertan azalduko dugu zeintzuk garen, zertan datzan lehiaketak, zeintzuk diren baldintzak eta zer egin behar duten kontratatu nahiko bagintuzte. Hori gertatuko balitz, gure baldintzak bete beharko lituzkete, adibidez, areto bat utzi ikuskizuna antolatzeke eta ikastetxei galdetegia bidali.

Gero, argi eta soinu teknikari batekin ere kontaktatuko genuke gure ikuskizunaren argiak, abestiak eta horrelakoetaz arduratzeko; honela, lehiaketa atseginagoa izango da. Kontaktatuko dugun teknikaria gurekin etorriko litzateke lehiaketa guztiera eta ikuskizun bakoitzeko diru-kantitate bat emango diogu.

Beste alde batetik, gure plana, parte hartzaile gutzietan oparitzo bat ematea denez, herriko jostailu-denda batekin kontaktuan jartzea ideia ona dela iruditu zaigu, bertan oparia erosteaz gain herriko dendei bultzadatxo bat emateko. Adibidez, Urretxu-Zumarragan, Aitxu izeneko denda batean erosiko genuke, denda txiki bat da umerentzako jolas aproposalarekin, uste dugu egokiena dela. Beste herrietan horrelako denda bat bilatuko genuke.



Gainera, gure partaideak lehiatzen ari diren bitartean taldeak desberdintzeko kamiseta batzuk enkargatuko genituzke "Zuzen" enpresan. Hau herriko enpresa bat da eta honekin kontaktuan jarriko gineteke lehenago erabilita dugulako, nola lan egiten duten gustatzen zaigulako eta bide batez enpresari laguntzatxo bat emateko. Kamisetak 10 kolore desberdineko 40 kamiseta izango dira saio baterako, bertan gure proiektuaren izena jarriko duena. Honela, bide batez, umek lehiaketaren oroigarri bat eramango dute etxera.

Horrez gain, erabiliko dugun material guztia gordetzeko leku bat beharko dugu, horregatik ganbara edo almatan bat bilatzen saiatuko gara. Gustuko dugun zerbait

aurkituz gero jabearekin kontaktuan jarriko ginateke, alokatu dezakegun jakiteko eta eskaintzen dizkigun baldintzak zeintzuk diren entzuteko. Pentsatu dugu aukera egokia izango litzatekeela UGGASA enpresarekin kontaktatzea, gazte-ekintzaileei aukera paregabeak ematen dizkietelako lokalak alokatzen dituztelako. UGGASA Urola Garaiko komunitateak (Ezkio, Legazpi, Urretxu eta Zumarragako udalek) sortutako garapen sozioekonomikorako agentzia da.

